

AURKEZPENA

Urteak aurrera doaz eta komunikatzeko bideak ere aldatzen joan dira. Teknologia geroz eta zabalagoa da eta honen ondorioz, komunikabide tradizionalak alde batera utzi eta beste bide batzuk zabaldu dira. Gaur egun, gazteen artean “streamer eta youtuber”-ak dira arrakasta gehien dutenak eta gure proiektua sortzaile digital hauekin lotuta dago. Horrez gain, “esports”-en, hau da, joku elektronikoen mundua, abidadura handian hazten doa. Gure enpresak, jokalarari profesional hauekin eta talde ezberdinekin ere lan egingo du.

Zein proiektu egingo genuen aukeratu behar genuenean, konturatu ginen sortzaile elektronikoen eta esports-en munduan hainbat behar ondo asetu gabe zeudela oraindik. Horregatik, gure proiektua mundu horren inguruan sortzea aukera bikaina zela pentsatu genuen. Azterketa sakon bat egin ondoren, manager kontzeptua oraindik guztiz finkatu gabe dagoela konturatu ginen eta behar hori asetzeko aukera paregabea zela iruditu zitzaigun.

